

FUNTSEZKO BALIABIDEAK


Funtsezko baliabideak behar-beharrezkoak dira enpresa garatzeko unean. Baliabide hauek eboluzionatzen, bezeroengana iristen eta haiekin harremanak mantentzen, diru-sarrerak sortzen eta lortzen eta beste hainbat ekintzetan lagunduko digute. Horregatik, oso garrantzitsua da gure funtsezko baliabideak finkatzea. Hauek fisikoak, intelektualak, giza baliabideak edo finantza baliabideak izan daitezke.

Baliabide fisikoei dagokienez, instalazio finko bat edukiko dugu hasiera batean gure produktua sortzeko. Seguruenik, instalazio hori lokal bat edo garaje bat izango da, auto batekin lan egingo dugulako. Enpresaren garapena ikusita, instalazio gehiago jarri ala ez erabakiko dugu, eskakizun kopuruen arabera. Bestetik, salmentarako puntuak jarriko ditugu, aurreko ataletan aipatu bezala, kontzesionario batzuekin adostasun batera iritsiko gara gure autoak bertan saltzeko. Salmentarako puntuak ez dira ugariak izango etekin maximoa izateko helburuarekin, hasiera batean behintzat, baina, ezagunak izatea saiatuko gara, sare sozialen bitartez ezagutaraztera emango ditugu.

Baliabide intelektuaren artean patenteak, egile-eskubideak eta gure gaitasunak garrantzitsuenak direla iruditzen zaizkigu. Talde bezala ditugun indarguneen artean helburuak lortzeko dugun gaitasuna azpimarratzen dugu, eta horretarako egiten ditugun ikerketak. Argi dago gure produktua oso berritzailea dela eta nahiz eta ideia pertsona askoren buruetatik pasa, guk bilakatuko dugu produktu. Horregatik, produktuaren patenteak eta egile-eskubideak guk edukitzea ezinbestekoa iruditzen zaigu, hasiera batean behintzat. Baliteke etorkizunean eskubide hauek beste enpresa bati saltzea, baina oraingoz asmorik ez dugunez, gure eskuetan mantenduko ditugu.

Gure enpresan partaideak garenok karguak hartu ditugu gure gain. Hasteko, Uxue Mendigutxia enpresako zuzendaria izango da, bere liderazgo eta autokonfiantzagatik. Berak zuzenduko gaitu eta markatuko du eraman behar dugun erritmoa. Gero, Sergio Lacasa marketing zuzendaria izango da, komunikatzeko gaitasun handia duelako, eta gainera, lanarekiko duen konpromezua eta lan egiteko gaitasuna izugarriak dira. Bestetik, mekanika-teknologia zuzendaritza postua Gorka Delpuertok hartuko du, bere aitak erakutsiko diolako arlo horretan moldatzeko beharrezkoak dituen teknizismo guztiak. Gainera, Gorkak taldean lan egiteko gaitasun handia du, eta argi dago tailer batean talde-lana funtsezkoa dela. Naia Odriozola zuzendari komertziala izango da, salmentetaz arduratuko delako. Horretarako, bere komunikatzeko gaitasunaz

baliatuko da, bere indargunea baita. Azkenik, Oihan Trecet zuzendari administratiboa izango da, gastuen eta salmenten lan idatzi guztiaz arduratuko delako. Hori, bere autonomia eta autoikasteko gaitasunagatik izango da. Beraz, orokorrean, rolak banatu eta gero, talde oso parekatua garela uste dugu. Gure postuei esker, gure indargunean ahalik eta gehien aprobetxatuko ditugulako ahulguneak estaliz. Gure ustez, guztien artean enpresa aurrera ateratzeko behar diren ezaugarri guztiak ditugu, eta ahulguneak indartuko ditugu.



Giza baliabideei dagokionez, produktua eta gure enpresaren politika benetan ongi ezagutzen duen jendea nahi dugu gurekin lanean, aldaketa klimatikoaren aldeko jendea ezinbestekoa da gure helburua den kutsaduraren murrizketa betetzeko. Bai guk eta baita gure langileek produktuarekiko dugun ezagutza totala izango da: funtzionamendua, prezioak, produkzioa... dena ezagutuko dugu. Gainera, gaitasun komertziala ezinbestekoa izango da. Lehen aipatu bezala, gure produktua berritzailea da eta salmenta ona izango duela uste dugu. Halere, beharrezkoa da produktua saltzen dakiten jendearekin lan egitea, eta gaitasun komertziala gure langileen funtsezko ezaugarrietako bat izango da. Horrez gain, produktuak berria izateari uzten dionean, produktua saltzen jarraitu beharko dugu, eta momentu horretan ere oso garrantzitsuak izango dira gure lankideak haiekin batera jardungo dugulako lanean eta beraiek osatuko dutelako baliabide intelektuala.

Finantza baliabidea enpresak aurrera egiteko beharrezkoa da. Diruaz hitz egiten dugu eta ezinbestekoa dugu autoa sortzeko behar ditugun materialak erosteko, hala nola, eguzki-plakak eta autoa erosteko. Gainera autoa eraikitzen lagunduko diguten langileen soldata ordaintzeko behar izango dugu eta etorkizun batean enpresa handitzeko behar izango dugu.

Laburbilduz, gure produktua bezeroen eskuetaraino iristeko beharrezkoak dira funtsezko baliabideak eta hauen barruan enpresa aurrera ateratzeko beharrezkoa izango dugun dirua, instalazioen kudeaketa, patentea, ezagutzak eta gaitasunak aztertzen ditu, besteak beste.